

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua funtzionatzeko, lehendabizi, aplikazio bat sortu beharko dugu, webgune batekin batera. Hauek sortutakoan, aplikazioaz jakinarazi beharko dugu, irakasle zein ikasleek deskargatu ahal izateko. Horretarako, debaldeko konferentziak, publizitatea eta marketing kanpaina egingo ditugu. Gainera, sarean oso aktibo egongo gara. Izan ere, arestian aipatutako webgunea oso eguneratuta egongo da. Honetan, gaur egungo heziketaren inguruko gai interesgarriak buruz gauza ezberdinak publikatuko ditugu, bezeroak gureganatuak sentiarazteko. Gainera, fisikoki ere, postontzietan, kartelak edo liburuxkak ere igorriko ditugu. Modu honetaz, bezeroak erakarriak sentituko dira eta horrela, irabaziak gero eta handiagoak izango dira.

Aplikazioa martxan dagoenean, irakasle eta ikasleengandik iritsitako informazioa bilduko dugu, prozesatu eta konparatuko dugu beste antzeko kasu batzuekin. Azkenik, gure ondorioak aterako ditugu gure bezeroak laguntzeko. Baina, honetaz aparte, hemen lortutako informazioa, hitzaldietan ere erabiliko dugu. Modu honetaz, zuzenean kontatu ahalko diegu beste eskoletan gertatutako beste kasu batzuk.